

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**172/2019 Foru Agindua, ekainaren 12koa, zeinak baimentzen baitu Eva María Díaz Picaza andrea Laudioko Udaleko behin-behineko diruzain izendatzea 2019ko ekainaren 17tik 24ra (biak barne)**

Laudioko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen horren beharra daukala, adierazitako denbora horretan Oscar Fernandez de la Roza korporazioko diruzaina ordezkatzeko.

Horregatik, proposatzen da Eva María Díaz Picaza udal horretako karrerako funtzionarioaren behin-behineko izendapena epe horretarako.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du 27/2013 Lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta–, non finkatzen baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betetz, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eva María Díaz Picaza andrea Laudioko Udaleko behin-behineko diruzain izendatzea, eginkizun horietan jardun dezan titularra ez dagoen bitartean; alegia, 2019ko ekainaren 17tik 24ra arte (biak barne).

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako epean baino ez du izango indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Laudioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 12a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua*  
**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Oreekaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**